

## Xedapen Orokorrak

### INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

#### Zk-4309

AGINDUA, 1999ko urriaren 5ekoa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena. Honen bidez, Industria, Merkataritza eta Turismoko Lurralde Bulegoen organo- eta eginkizun-egitura arautzen da.

Otsailaren 23ko 131/1999 Dekretuaren bidez, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko organo- eta eginkizun-egitura ezarri zen. Dekretu hartako 2. artikuluan, Saileko egitura ezartzean, organo periferikotzat jo ziren Industria, Merkataritza eta Turismoko lurralde bulegoak.

Orobat, dekretu hartako 24. artikuluan xedatu zenez, «Industria, merkataritza eta Turismo lurralde-ordezkaritza bat izango da lurralde historiko bakoitzean; zuzenean eta hierarkian Zerbitzu Orokoretako zuzendariaaren menpekoak izango dira; baina eginkizunei dagokienez, gaia dela-eta, Saileko kasuan kasuko zuzendaritzen menpekoak izango dira. Ordezkaritza horien ardura izango da dagozkien betearazte-eginkizunak betetzea; hain zuzen ere, Sailaren eskumenekoak diren industria, merkataritza eta turismo arloetakoak, beti ere dagokien lurraldearen barruan».

Beste alde batetik, dekretu hartako Azken Xedapenetatik hirugarrenean jasota dago, lurralde bulegoentzako egitura eta eginkizunak, garapeneko xedapen egokien bidez arautu beharra.

Saileko organo periferikoentzako egitura eta antolaketa arautzeko beharra, egungo egunean, ezinbesteko eta premiazko dugu. Are gehiago, kontuan hartuta orain arte beste Sail batzuetako lokaletan eta egituretan zeuden eginkizun-arloen integratzea.

Proposatzen den egitura eta antolaketa berriak, bada, integratzeko hori aurrera eramateko mekanismo eta sistema egokiak ezarri nahi ditu. Halaber, zerbitzu ematea zaluagoa izan dadin, zerbitzu horiek ahalik eta modu eraginkorrenean antolatzearren, hainbat arloren bidezko eginkizun banaketa ezarri da. Hartara, administrazioaren edozein jarduketaren oinarrietako bat bete da: herritarra zerbitzatzea.

Otsailaren 23ko 131/1999 Dekretuan xedatutakoari jarraikiz, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko organo descentralizatu gisa eratzen dira lurralde bulegoak, eta ematen zaizkien eginkizun eta eskumenak aurrera eramateko nahikoa kudeatze gaitasunarekin.

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

#### Nº-4309

ORDEN de 5 de octubre de 1999, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula la estructura orgánica y funcional de las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo.

Mediante Decreto 131/1999, de 23 de febrero, se estableció la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo. En el artículo 2 del citado Decreto, al establecer la estructura del Departamento, se clasificaban como Órganos Periféricos las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo.

Asimismo, el artículo 24 del referido Decreto, establecía que «bajo la dependencia directa y jerárquica del Director de Servicios Generales y la funcional, por razón de la materia, de las Direcciones del Departamento correspondientes, en cada uno de los Territorios Históricos existirá una Oficina Territorial de Industria, Comercio y Turismo que ejercerá las funciones ejecutivas en materia de industria, comercio y turismo de competencia del Departamento, dentro de su respectivo ámbito territorial de actuación».

Por otra parte, la Disposición Final Tercera del mismo Decreto recoge la obligación de regular la estructura y funciones de las Oficinas Territoriales a través de sus correspondientes disposiciones de desarrollo.

En el momento actual, la necesidad de proceder a una regulación de la estructura y organización de los Órganos Periféricos del Departamento, se plantea de forma obligada y perentoria, máxime si se tiene en cuenta la integración de áreas funcionales que, hasta la fecha, se ubicaban bajo dependencias y estructuras incardinadas en Departamentos distintos.

La nueva estructuración y ordenación que se propone, pretende establecer los mecanismos y sistemas adecuados para que tal integración se produzca, al mismo tiempo que, se establece una distribución funcional en distintas áreas que permita organizar los servicios de la forma más eficaz posible, para una prestación ágil de los mismos, cumpliéndose uno de los principios básicos de toda actuación administrativa que no es otro que el del servicio al ciudadano.

De acuerdo con lo establecido en el referido Decreto 131/1999, de 23 de febrero, las Oficinas Territoriales se configuran como órganos descentralizados del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, con la capacidad gestora necesaria para el cumplimiento de las

Eginkizun eta eskumen horien artean, administratuari Sailaren aginpideko arloei buruzko argibideak eta aholkuak emateko eginkizuna dago.

Dekretu hartan bertan, Azkeneko Lehenengo Xedapenean, dekretu hura garatzeko beharrezko xedapenak emateko gaitasuna eman zitzzion Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari.

Horren indarrezz, adierazitako legezko xedapenak eta orokorrean aplikatzekoak diren eta hemen aplikatzea egoki den beste batzuk ikusita,

#### XEDATU DUT:

##### **1. artikulua.-** Xedea.

Agindu honen xede da otsailaren 23ko 131/1999 Dekretuaz eratutako Industria, Merkataritza eta Turismoko bulegoena egitura, antolaketa eta eginkizunak arautzea.

##### **2. artikulua.-** Antolaketa.

1.- Agindu honetan xedatutako eginkizunak aurreera eramateko, industria, merkataritza eta turismo bulegoak honela egituratu behar dira:

a) Zerbitzu orokorrak.

b) Sektore-arloak.

2.- Lurralde bulego bakoitzeko buru, lurralde bulegoko burua izango da. Zuzendariorde kategoria izango du. Zuzendariordea, hierarkiaren aldetik, Zerbitzu Orokoretako zuzendariaren menpe egongo da; eta, gaiaren aldetik, dagokion Zuzendaritza bakoitzaren menpe. Lurralde bulegoko burua izango bulegoko arduradun gorena, eta Agindu honetako 5. artikuluan ezarritako eginkizunak beteko ditu.

3.- Zerbitzu orokorretan, izaera horizontaleko eginkizun guztiak sartzen dira; besteak beste, ekonomia- eta langileria-administrazioari dagozkionak, aholkularitza juridikoa eta informazio sistemak.

4.- Sektore-arlo bakoitzaren buru (Meategien arloan izan ezik), Arloko koordinatzailea izango da. Koordinatzailea, hierarkiaren aldetik, Lurralde Bulegoko buruaren menpe egongo da. Eta, gaia dela eta, dagokion Zuzendaritzak sektorerako ematen dituen jarraibideekin bat, Agindu honetako 6. artikuluan ezarritako eginkizunak beteko ditu.

5.- Meategien arloa sekzio tekniko eratzen da. Meatzaritza ustiategien banaketa geografikoaren ondorioz duen berezitasuna aintzat hartuta, Industria eta Meategien Administratziorako Zuzendaritzako Meategi Zerbitzuko buruak beteko ditu, zuzenean, Arloko koordinatzailearen eginkizunak. Nolanahi ere, Lurralde Bulegoetako Meategien arloan diharduten langileak, hierarkiaren aldetik, Lurralde Bulegoko buruaren menpe egongo dira.

funciones y competencias que se les atribuyen, entre las que hay que incluir las funciones de información y asesoramiento al administrado en las áreas de competencia del Departamento.

La Disposición Final Primera del mismo Decreto, faculta al Consejero de Industria, Comercio y Turismo, para dictar las disposiciones necesarias para su desarrollo.

En su virtud, vistas las disposiciones legales citadas y otras de general y concordante aplicación.

#### DISPONGO:

##### **Artículo 1.-** Objeto.

La presente Orden tiene por objeto regular la estructura, organización y funciones de las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo constituidas por Decreto 131/1999, de 23 de febrero.

##### **Artículo 2.-** Organización.

1.- Para el ejercicio de las funciones previstas en la presente Orden, las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo se estructuran de la siguiente forma:

a) Servicios Generales.

b) Áreas Sectoriales.

2.- Al frente de cada Oficina Territorial existirá un Jefe de Oficina Territorial, con categoría de Subdirector, que en dependencia jerárquica del Director de Servicios Generales, y funcional, por razón de la materia, de cada una de las Direcciones correspondientes, se configura como máximo responsable de la Oficina, y ejercerá las funciones que se establecen en el artículo 5 de la presente Orden.

3.- En los Servicios Generales se integran todas las funciones de carácter horizontal, incluyéndose entre ellas las correspondientes a administración económica y de personal, asesoría jurídica y organización y sistemas de información.

4.- Al frente de cada una de las Areas Sectoriales, salvo en la de Minas, existirá un Coordinador de Área que, en dependencia jerárquica del Jefe de Oficina Territorial, y de conformidad con las directrices sectoriales que, por razón de la materia, le dicte la Dirección correspondiente, ejercerá las funciones que se establecen en el artículo 6 de esta Orden.

5.- El área de Minas se configura como una sección técnica y, en atención a la singularidad propia derivada de la distribución geográfica de las explotaciones mineras, las funciones propias del Coordinador de Área serán ejercidas directamente por el Jefe del Servicio de Minas de la Dirección de Administración de Industria y Minas. En todo caso el personal que realice sus funciones en el área de Minas de las Oficinas Territoriales mantendrá su dependencia jerárquica del Jefe de la Oficina Territorial.

### 3. artikulua.- Sektore-arloak.

Industria, Merkataritza eta Turismoko lurralte bulegoaren bidez ematen diren zerbitzuak, ondorengo sektore-arlo hauen arabera egituratzen dira:

A.- Energia arloa. Arlo horretan sartuko dira energiaren eta energia produktuen ekoizpen, garraio, eraldaketa, banaketa eta merkaturatzeari buruz lurralte bulegoari dagozkion jarduketa guztiak. Horien artean, gai hauei dagozkienak sartu behar dira:

- Elektrizitatea.
- Gas-erregaiak.
- Petrolio produktuak.
- Uretarako barne instalazioak.

Arlo horretan sartuko dira, orobat, isurkari-erregaiak biltegian gordetzairei buruzko jarduketak.

B.- Industria arloa. Hor sartuko dira lurralte bulegoari dagozkion eta, otsailaren 23ko 131/1999 Dekretuan ezarritakoari jarraituz, Industria arloan sartu beharrekoak diren jarduketa guztiak; bai eta industria sektoreko ekonomia sustatzeari dagozkion jarduketak ere.

B.1.- Industria arloari dagozkion eginkizunen artean, honako hauei buruzkoak sartzen dira:

- Industria establezimenduen erregistroa.
- Industria kalitate eta segurtasunerako azpiegitura.
- Industria produktuetako ziurtagiriak eta kontrola. Makinetako segurtasuna.
- Metrologia.
- Jabetza industriala.
- Enpresa kalifikazioa.

B.2.- Industria sektorea sustatzeari dagozkion jarduketen artean, sektore horri laguntzeko egitarauetako buruz lurralte bulegoak egiten dituen jarduketak sartuko dira.

C.- Industria Segurtasuneko arloa. Hor sartuko dira lurralte bulegoari dagozkion eta, otsailaren 23ko 131/1999 Dekretuan ezarritakoari jarraituz, arlo horretan sartu beharrekoak diren jarduketa guztiak; eta, batez ere, gai hauei buruzko jarduketak:

- Gas-erregaiak eta produktu kimikoak biltegian gordetzea.
- Gasaren, berokuntzako, klimatizazioko eta osasun-ur beroko instalazioak.
- Hozkailu-instalazioak.
- Instalazio erradioaktiboak.
- Istripu larriei aurrea hartzea.
- Industria segurtasuneko araudiaren pean diren aparatu eta tresneriak.

### Artículo 3.- Áreas Sectoriales.

Los servicios que se presten desde las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo se estructuran de acuerdo con las siguientes áreas sectoriales:

A.- Área de Energía. En este área se incluirán todas las actuaciones que correspondan a la Oficina Territorial relativas a la Producción, Transporte, Transformación, Distribución y Comercialización de Energía y Productos Energéticos, entre las que deben incluirse las correspondientes a las siguientes materias:

- Electricidad.
- Combustibles gaseosos.
- Productos Petrolíferos.
- Instalaciones interiores de agua.

En esta área se incluirán, asimismo, las actuaciones relativas al almacenamiento de combustibles líquidos.

B.- Área de Industria. Se incluirán todas las actuaciones que, correspondiendo a la Oficina Territorial, deban encuadrarse conforme al Decreto 131/1999, de 23 de febrero, en el área de industria, y también las correspondientes a la promoción económica del sector industrial.

B.1.- Entre las funciones correspondientes al área de industria se incluyen las relativas a:

- Registro de Establecimientos Industriales.
- Infraestructura para la calidad y seguridad industrial.
- Certificación y Control de Productos Industriales. Seguridad de máquinas.
- Metrología.
- Propiedad industrial.
- Calificación Empresarial.

B.2.- Entre las actuaciones correspondientes a la promoción del sector industrial se incluirán las actuaciones que realice la Oficina Territorial relativas a los programas de apoyo a este sector.

C.- Área de Seguridad Industrial. Se incluirán todas las actuaciones que, correspondiendo a la Oficina Territorial deban encuadrarse, conforme al Decreto 131/1999, de 23 de febrero, en este área, y en particular las relativas a las siguientes materias:

- Almacenamientos de combustibles gaseosos y de productos químicos.
- Instalaciones de gas, de calefacción, de climatización y de agua caliente sanitaria.
- Instalaciones frigoríficas.
- Instalaciones radiactivas.
- Prevención de Accidentes Mayores.
- Aparatos y equipos sometidos a reglamentación de seguridad industrial.

D.- Meategien arloa. Arlo horretan sartuko dira meatzaritzako segurtasunari eta meatzaritza jardueren funtzionamendua kontrolatu eta zaintzeari buruz lurrarde bulegoari dagozkion jarduketak.

E.- Merkataritza eta Kontsumo arloa. Arlo horretan sartuko dira merkataritza sektoreko ekonomia sustazteari, sektore hori antolatzeari eta kontsumitzaleen eskubide eta interesak aldezteari buruz lurralde bulegoari dagozkion jarduketak.

E.1.- Ekonomia sustatzeko jarduketen artean, merkataritza sektoreari eta merkataritza establezimendu kolktiboei laguntzeko jarduketak sartzen dira, bai eta merkataritza biziberritzeko plan bereziak ere.

E.2.- Merkataritza sektorea antolatzeko jarduketen artean, honako hauei buruzkoak sartzen dira:

- Salmenta azalera handiak.
- Baimendutako prezioak.
- Salmenta era bereziak.
- Debekatutako merkataritza jardunak kontrolatzea eta ikuskatze kanpainak.
- Merkataritza lehiaketak.

E.3.- Kontsumitzaleen eskubide eta interesak aldezteko jarduketen artean, honako gai hauei buruzkoak sartzen dira:

- Erreklamazio, salaketa eta galderi kasu egitea.
- Kontsumitzaleei eta kontsumoko teknikariei argibideak eta prestakuntza ematea.
- Kontsumitzaleen informaziorako udal bulegoekin eta kontsumitzale elkarteekin koordinatzea.
- Kontsumoko ikuskatzeak.
- Alertako sareak.
- Kontsumoko eztabaidetan arbitratzea.

F.- Turismo arloa. Arlo horretan sartuko dira turismo sektoreko ekonomia sustazteari eta sektore hori antolatzeari buruz lurralde bulegoari dagozkion jarduketak:

- Turismo establezimenduetako jarduera eta sailkapena.
- Turismo enpresen erregistroa.
- Turismoko erabiltzaileari argibideak ematea.
- Turismo enpresak ikusku eta kontrolatzea.
- Turismo enpresa eta eragileei sustapena eta aholkuak ematea.

#### **4. artikulua.- Eskumenak eta eginkizunak.**

Aurreko artikuluetan ezarritako arloetako bakotzean, Industria, Merkataritza eta Turismoko lurralde bulegoetan honako eskumen eta eginkizun hauek era-mango dituzte aurrera:

D.- Área de Minas. En esta área se incluirán las actuaciones que correspondan a la Oficina Territorial relativas a la seguridad minera, al control y seguimiento del funcionamiento de las actividades mineras.

E.- Área de Comercio y Consumo. En esta área se incluirán las actuaciones que correspondan a la Oficina Territorial en lo referente a la promoción económica del sector comercial y a su ordenación y en el ámbito de la defensa de los derechos e intereses de los consumidores.

E.1.- Entre las actuaciones de promoción económica se incluyen las de apoyo al sector comercial y equipamientos comerciales colectivos, así como los planes especiales de revitalización comercial.

E.2.- Entre las actuaciones correspondientes a la ordenación del sector comercial se incluyen las relativas a:

- Grandes superficies.
- Precios autorizados.
- Modalidades especiales de venta.
- Control de prácticas comerciales prohibidas y campañas de inspección.
- Certámenes comerciales.

E.3.- Entre las actuaciones correspondientes a la defensa de los derechos e intereses de los consumidores se incluyen las relativas a las siguientes materias:

- Atención de reclamaciones, denuncias y consultas.
- Información y formación de los consumidores y de los técnicos de consumo.
- Coordinación con las Oficinas Municipales de Información al Consumidor y con las Asociaciones de Consumidores.
- Inspecciones de consumo.
- Redes de alerta.
- Arbitraje de consumo.

F.- Área de Turismo. En esta área se incluirán las actuaciones que correspondan a la Oficina Territorial, tanto en lo referente a la promoción económica como a la ordenación del sector turístico:

- Actividad y clasificación de los establecimientos turísticos.
- Registro de empresas turísticas.
- Información del usuario turístico.
- Inspección y control de las empresas turísticas.
- Promoción y asesoramiento a empresas y promotores turísticos.

#### **Artículo 4.- Competencias y funciones.**

Dentro de cada una de las áreas previstas en los artículos anteriores, desde las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo se ejercerán las siguientes competencias y funciones:

1.- Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko organo zentralen aginpidekoak diren eta Agindu honetako 3. artikuluan zehaztutako gaiei buruzkoak diren administrazio espediente guztiak izapideztea, ebazpen proposamena egin arte, egoki baldin bada.

2.- Honako gai hauei buruz, administrazio espediente guztiak izapidetu eta ebaztea:

– Industria segurtasunaren gaian instalazioak, mantentzea eta bestelako jarduerak egiten dituzten enpresestarako, profesional txartelak eta baimendutako enpresek direla adierazteko ziurtagiriak eman eta berritzea.

– Empresa-kalifikazioko agiria ematea, zenbait industria jarduera egiteko aldez aurreko betekizun gisa, horrela jokatzea eskatzen duten herri intereseko arrazoiak daudenean.

– Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko administrazio erregistroetako ziurtagiri eta izen emateak, Agindu honetako 3. artikuluan adierazitako jarduketa arloei dagokienez.

– Industria arauen menpe dauden instalazio, aparatu eta tresneriak lanean jartzeko agiria ematea, baldintza tekniko egokiak betetzen dituela egiaztatutakoan, baldin aldez aurreko administrazio baimena behar ez bada.

– Merkataritza Jardueraren Legean adierazitako salmenta era bereziak baimentzea.

– Merkataritza lehiaketak baimentzea.

3.- Ondorengo administrazio espediente hauek izapidetu eta, dagokionean, ebaztea:

– Agindu honetan lurrarde bulegoei esleitutako gaiei buruzko erreklamazio, kexu eta salaketak.

– Administrazio espedienteak hasi aurretiko eginbideak edo jarduketak artxibatzea.

– Erreklamazio bat dagokionez administrazio hausnerik egin izana sumatzen ez denean, erreklamazio horri artxibatzea.

4.- Zigor espedienteak hasi aurretiko jarduketak eta zigor espedienteen instrukzioa egitea, indarrean den legendian ezarritakoari jarraikiz; Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko beste organo bat atxikitako beste funtzionario bat espreski instruktoretzat izendatzen denean izan ezik.

5.- Teknikoak diren txosten, ikuskatze nahiz auditoriak. Horiek aurrera eramateko, Sail honen menpe dauden zerbitzu teknikoek egin beharrekoak diren (indarrean den araudi teknikoan hala jasota dagoelako edo aginpidea duen zuzendaritzak hala erabaki duelako) jarduketa guztiak egin beharko dira.

1.- Tramitación, hasta la propuesta de resolución, si resultare procedente, de todos aquellos expedientes administrativos cuya competencia corresponda a los Órganos Centrales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo y se refieran a las materias relacionadas en el artículo 3 de la presente Orden.

2.- Tramitación y resolución de todos aquellos expedientes administrativos en relación con las siguientes materias:

– Concesión y renovación de Carnés Profesionales y emisión de Certificados de Empresa Autorizada para aquellas empresas que realizan instalaciones, mantenimiento y otras actividades en materia de seguridad industrial.

– Expedición del Documento de calificación empresarial como requisito previo para el ejercicio de determinadas actividades industriales, cuando existan razones de interés público que así lo requieran.

– Certificados e inscripciones en los Registros Administrativos del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, en relación con las áreas de actuación señaladas en el artículo 3 de la presente Orden.

– Emisión del Documento de Puesta en Servicio de las instalaciones, aparatos y equipos industriales sometidos a reglamentaciones industriales, una vez que se haya acreditado el cumplimiento de las condiciones técnicas correspondientes y siempre que no necesiten autorización administrativa previa.

– Autorización de las modalidades especiales de venta previstas en la Ley de Actividad Comercial.

– Autorización de Certámenes Comerciales.

3.- Tramitación y resolución, en su caso, de los siguientes expedientes administrativos:

– Reclamaciones, quejas y denuncias relativas a todas aquellas materias atribuidas en esta Orden, a las Oficinas Territoriales.

– Archivo de diligencias o de actuaciones previas al inicio de expedientes administrativos.

– Archivo de aquellas reclamaciones en las que no se aprecie la comisión de una infracción administrativa.

4.- Realización de actuaciones preliminares con carácter previo al inicio de expedientes sancionadores y la instrucción de los mismos, de acuerdo con lo establecido en la legislación vigente, salvo en los supuestos en los que se designe expresamente como instructor a otro funcionario adscrito a otro órgano del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

5.- Informes técnicos e inspecciones o auditorías de carácter técnico, a cuyos efectos deberán realizarse todas aquellas actuaciones que, por aplicación de la reglamentación técnica vigente o por decisión de la Dirección competente, deban ser ejecutadas por los Servicios Técnicos dependientes de este Departamento.

6.- Herritarri argibideak eta aholkuak ematea. Hartara, Sailaren eskumenei dagozkien arloetan egiten diren galdera eta eskabide guztiak, jatorria edozein dela ere, lurrealde bulegoetan hartu, bideratu eta, dago-kionean, izapidetuko dituzte.

7.- Arauen eremu teknikoan duten eragin mailagatik espreski lurrealde bulegoei eskuordetzen zaizkien administrazio espedienteak izapidetu eta ebaiztea.

##### 5. artikulua.- Lurrealde bulegoko burua.

Lurrealde bulegoko buruek eginkizun hauek beteko dituzte:

1.- Lurrealde bulegoko barne zerbitzuak eta lan sistematik zuzendu eta antolatzea, organo aginpidedunek ezarritako arauetan jarraituz.

2.- Lurrealde bulegoaren jarduerak programatu, bultzatu, zuzendu, koordinatu eta kontrolatzea, zuzendari aginpidedunarengandik jasotako jarraibideak betez.

3.- Lurrealde bulegoko ekonomia eta langileria administratza, aurrekontua betetzea zaintza, eta langileriari atxikitako langileria antolatu eta kontrolatzea. Salbuetsita daude beste organo batzuen eskumeneko diren eginkizunak.

4.- Hierarkiaren eta eginkizunaren aldetik lurrealde bulegoengainetik dauden organoiei, beren aginpidean ezarritako gaietako planak, programak edo jarduera-jarraibideak proposatzea.

5.- Merkataritza, Industria eta Itsasketa ganberetako gobernu organoetan parte hartzea.

6.- Bulegoei esleitzentz zaizkien eginkizun eta eskumenak aurrera eramateko behar diren administrazio egintzak ematea, espreski arloko koordinatzaleei esleitzentz zaizkienak izan ezik.

7.- Espreski ematen zaion beste edozein eginkizun.

##### 6. artikulua.- Arloko koordinatzialeak.

Arloko koordinatzialeak, Agindu honetako 3. artikuluan ezarritako sektore-arloen arabera egituratzendira. Beren arloko teknikariei esleitutako funtziok koordinatzearaz gain, honako eginkizun hauek beteko dituzte:

1.- Bere ardurako arloari dagozkion administrazio espediente guztien izapidea kontrolatu eta zaintza.

2.- Egoki denean, dagozkion gaietan, lanean jartzeko agiria ematea, bai eta jarduketa proposamenak ematea ere.

3.- Bere arloari atxikitako langileen artean, bakotzak egin beharreko lanak antolatu eta banatzea.

6.- Información y asesoramiento al ciudadano, de forma que desde las Oficinas Territoriales se atenderán, encauzarán y, en su caso, tramitarán todas aquellas consultas y solicitudes, cualquiera que sea su origen, que se realicen en las diferentes áreas relacionadas con las competencias propias del Departamento.

7.- Tramitación y resolución de aquellos expedientes administrativos que, en atención al grado de incidencia en el ámbito técnico reglamentario, sean delegados expresamente en las Oficinas Territoriales.

##### Artículo 5.- Jefe de Oficina Territorial.

Los Jefes de Oficina Territorial ejercerán las siguientes funciones:

1.- Dirigir y organizar los servicios internos y sistemas de trabajo de la Oficina Territorial, de acuerdo con las normas establecidas por los órganos competentes.

2.- Programar, impulsar, dirigir, coordinar y controlar las actividades de la Oficina Territorial, de conformidad con las instrucciones recibidas del Director competente.

3.- Administración económica y de personal; seguimiento de la ejecución presupuestaria de la Oficina Territorial y organización y control del personal adscrito a la Oficina, todo ello sin perjuicio de las funciones que son competencia de otros órganos.

4.- Proponer a los órganos de los que dependen jerárquica y funcionalmente las Oficinas Territoriales los planes, programas o instrucciones de actuación en las materias atribuidas a su competencia.

5.- Participación en los órganos de gobierno de las Cámaras de Comercio, Industria y Navegación.

6.- Dictar los actos administrativos necesarios para la ejecución de las funciones y competencias que se atribuyen a las Oficinas, con excepción de las que se asignen expresamente a los Coordinadores de Área.

7.- Cualesquier otras funciones que le sean expresamente atribuidas.

##### Artículo 6.- Coordinadores de Área.

Los Coordinadores de Área, se estructuran de acuerdo con las áreas sectoriales previstas en el artículo 3 de esta Orden y ejercerán, además de la coordinación de las funciones atribuidas a los técnicos de su área, las siguientes funciones:

1.- Control y seguimiento de la tramitación de todos aquellos expedientes administrativos propios de su área de responsabilidad.

2.- Emisión, en su caso, del Documento de Puesta en Servicio en las materias que le sean propias, así como, la emisión de propuestas de actuación.

3.- Organización y distribución de cargas de trabajo entre el personal adscrito a su área.

4.- Bere arloari atxikitako langileen txosten teknikoak, ikuskatze txostenak eta gainerako administrazio egintzak kontrolatu eta berrikustea.

5.- Bere lurrealde eremuan, auditoria teknikoen planak eta ikuskatze planak antolatzea, dagokion zuzendaritzaren jarraibideak betez.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honetan xedatutako lanposturen bat bete gabe badago edo titularra kanpoan edo gaixorik badago, egoera horrek dirauen bitartean, titular hori izendatzeko aginpidea duen organoak izendatzen duenak beteko ditu lanpostu horri egotzitako eginkizunak.

#### XEDAPEN IRAGANKORRA

Agindu honen xede diren egitura aldaketak, lanpostuen zerrendak aldatzeko dekretu egokia argitaratzean sartuko dira indarrean.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**- Agindu honen bidez espreski lurrealde bulegoei eman ez zaizkien eginkizun guztiak, gai horretan aginpidea duen zuzendaritzak beteko ditu.

**Bigarrena.**- Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Zerbitzu Orokoren zuzendaria aginpidea ematen zaio, Agindu honetan xedatutakoa egoki interpreta dadin eta arauzko eran bete dadin behar diren jarraibide eta aginduak eman ditzan.

**Hirugarrena.**- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean Agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 1999ko urriaren 5a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,  
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

4.- Control y revisión de los informes técnicos, informes de inspección y demás actos administrativos del personal adscrito a su área.

5.- Organización, en el ámbito territorial, de los Planes de Auditorías Técnicas y Planes de Inspección, de acuerdo con las instrucciones de la Dirección correspondiente.

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

En los casos de vacante, ausencia o enfermedad de los titulares de las plazas previstas en la presente Orden, las funciones atribuidas a los mismos serán ejercidas, mientras dure tal situación, por quien designe el órgano competente para el nombramiento de aquéllos.

#### DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Las modificaciones estructurales objeto de la presente Orden entrarán en vigor con la publicación del correspondiente Decreto de modificación de las relaciones de puestos de trabajo.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**- Todas aquellas funciones que de forma expresa no estén asignadas a la Oficinas Territoriales por la presente Orden se ejercerán por la Dirección que resulte competente por razón de la materia.

**Segunda.**- Se faculta al Director de Servicios Generales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo para dictar cuantas instrucciones y órdenes de servicio sean necesarias para la correcta interpretación y el regular cumplimiento de lo establecido en la presente Orden.

**Tercera.**- La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de octubre de 1999.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,  
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.